

OINARRIAK



1 Lehiaketa honetan euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak har dezake parte, baita Mintzakide programako parte-hartzaileek ere.

2 Hiru maila ditu lehiaketak:

- 1. mailan A1 eta A2 mailetako ikasleek har dezakete parte.
- 2. mailan, berriz, B1 mailako ikasleek.
- 3. maila B2 eta C1 mailetako ikasleendako da.

Mintzakide programako parte-hartzaileek duten ezagutzaren pareko mailan parte hartuko dute.



NANOIPUIN LEHIAKETA 2018

Mank
s a k a n a

NANOIPUIN LEHIAKETA 2018

Mank
s a k a n a



3 Lanak banaka egingo dira, eta egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. Nanoipuin bakoitzak 100 hitz izango ditu gutxienez eta 150 gehienez.

4 Lanak euskara hutsean idatziko dira eta argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabeak izanen dira.

5 Indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko.

6 Lanak Internet bidez bidaliko dira **euskara1@sakana-mank.eus** helbidera pdf formatuan. Datuak (izen-abizenak, telefonoa, helbidea, e-posta eta ikasketa-maila) beste dokumentu batean bidaliko dira antolakuntzak banatutako ereduari idatzirik.

7 Sakanako Mankomunitateak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da.

NANOIPUIN LEHIAKETA 2018

8 Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 22a izango da.

9 Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta obrek ez badute behar bezalako merezimendurik.

10 Aurkeztutako lanak Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira. Mankomunitateak lanak argitaratzeko aukera gordeko du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

11 Maila bakoitzeko saridunek eBook bat jasoko dute.

12 Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berarekin.

13 Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, parte-hartzaileek onartu egiten dute lehiaketa honetan ematen dituzten datu pertsonalak Sakanako Mankomunitatearen fitxategi batean gordeta geratuko direla. Parte-hartzaileek esku-bidea dute beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatuzko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen idatzia bidali beharko dute Sakanako Mankomunitatera.

14 Sari-ematea berariaz antolatutako ekitaldi batean egingo da. Sakanako Mankomunitateak ekitaldian ateratako argazki eta bideoak zabaldu ahal izanen ditu.